HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

Atseginez zabaltzen dugu **Bat**-en 25. ale hau Belgikako Unibertsitatearen arazoaren berri emanez.

Alde batetik, hizkuntzaren aldeko borroka luzean, flandiar abertzaleak benetako eredu eta argi-iturri izan daitezkeelako. Ikus, adibidez, eta aldizkari honetan bertan, orain dela zazpi urte, Txillardegiren sinaduraz, argitara zen dossierra: «Hizkuntz lurraldetasuna Belgikan», Bat 2, 49-66 orr.

Eta bestetik, Unibertsitatearen alorrean flandiarrek burututako lana eta gorabeherak (Leuven-goaren bikoizketakoan, esate baterako), guretzat oso interesgarri gerta daitezkeelako.

Bertako bi irakasle flandiar ezagun horiek (**K. Deprez** Antwerpen-go irakaslea da, eta **A. Wynants** Liège-koa) eskainitako lan horrek, balio berezia du euskaltzaleontzat. Hemengo alienazio-mailak begi aurrean ditugularik, kontsolagarri bederen suertatzen da Gent-eko Unibertsitatearen kondaira berrirakurtzea. Holandako unibertsitate guztiak arazorik gabe nederlandera hutsez ari zirelarik ere, Belgikako frantximentei gehiegikeria eta astakeria iruditzen baitzitzaien Flandriako Gent-ekoan gauza bera egitea!

Askotan entzun eta irakurririk ere, adierazgarri zaizkigu Von Bissing-en eta «Baraque Wolf»en istorio horiek, eta Leuven eta Brussel-go Unibertsitateen bikoizketak, eta abar luze bat.

Ez zaio inori artikulu hau irakurri izana damutuko.

Ondoren **Xabier Isasi** irakasle eta lankidearen artikulu mamitsua dator, Euskal Herriko Unibertsitatea eta euskara bikotea dute aztergai. Eta beharbada irakur-zaila izanik ere, mamitsua ere bada, eta trinko; eta unibertsitatearen euskalduntzeaz funtsez mintzatu nahi izatekotan, erabat beharrezkoa.

Ageri diren kopuruak eta taulak ez dira, izan, guztiz bihotz altxagarriak. Baina bai abiapuntu sendo bat finkatzeko oinarria badugula sinets erazteko modukoak. Flandiarrek mende honetako hogei-ta-hamarkadan bota zuten erronka ausarditsua, (nederlandera hutsezko Unibertsitatearena, alegia), hemen ere jadanik posible eta gauzagarri dela dinosku Isasi irakasleak (euskaldun ikasleen kopurua 10.000 inguruan kokatzen baita).

Nola uler, horretara, eta urrats hori eskuragarri agertzen zaigun unean, oraindik ere Arkitektura Eskolan, Farmazia Fakultatean, are Erizaintza Eskolan ere (eta hauxe da hiruotan larriena zenbait alderditatik) euskararen presentzia eta erabilpena hutsaren hurrena izatea?

Aurrerapausua emateko ausardia behar dugu, fidantzia, eta borondate politikoa, oro har; zoritxarrez instituzio ofizialetan batere garbi agertzen ez direnak. Alderantzizko irizpideak bide daude oraindik nagusi erabakiak hartu behar dituztenen artean; eta «euskal lerroaren» ideiaren beraren aurkako ahotsak hedatu dira berriki oso goitik eta oso ozenki. Isasiren lan honetan argi eta garbi salatzen den bidetik. De Raet-en irudia, hitz batez, oso urrun gelditzen zaigu euskaldunoi. Zoritxarrez.

Isasik eskaintzen dituen datoak, nolanahi ere, hortxe daude; nahi edo behar dituenaren zerbitzutan. Eta zantzu larriak ere bai: «*UPV-EHUan euskaraz ikasten ari direnen proportzioa, aurreko ikasketetan baino txikiagoa da*». Zergatik? Galdera egiteko garaia dugu. Areago euskal lerroa bera «auto-matrikulazio» delakoaren aitzakian, desager erazteko asmoa nabarmen agertzen delarik. Belgikako lan soziolinguistikoetan ez dugu sekula automatrikulazio horren aztarnarik ikusi. Suitzan ere ez. Nork bultzatzen ditu proiektu horiek?

Ildo beretik, balio handia izan dezakete **Juan Ignazio Pérez** UPV-EHUko Euskara Errektoreordearen hitzek. Berehalako helburutzat hartua omen du, besteak beste, irakasle elebidunen birziklatu beharra, hiztegi mailan dauden hutsuneak betetzeko premia, eta Euskara Institutoa indartzea.

Arrakasta handia lortzea desiratzen diogu euskaldun unibertsitari guztiok.

Eta gisa denez, eta *Euskara Unibertsitatean* alor zabal horri buruzko ikuspegia osatzekotan, arras egoki datorkigu (nahiz berri txar mordo baten ekarle) **Koldo Asiron** nafar irakaslearen izkribu interesgarria.

Nafarroako U.P.N.A. izeneko Unibertsitate ofizialak, beteak ditu jadanik bere lehendabiziko 8 urteak; eta emaitza bildumatxo bat egin daiteke. Kondaira apur bat egitea ongi datorkigu horretarako (ahaztuta geneu-

kan, besteak beste, Burillo Errektorearen Magisteritzako Haur Hezkuntzaren euskal lerroa kentzeko asmoa; beharrik, bururatu gabe gelditua...)

Ondoko erabakien gora-beherik kutsu hits eta ezkor bera utziko dute irakurlearengan. Baina ezer konpondu edo bideratuko baldin bada, egiari bere bidea aurrenik.

Oso pozgarria, bestetik, euskaldun ikasleen kopuruaren azkartzea: %8koa 1993an, %14,5ra pasa da iaz, 1997an. Eta maila hori %30raino iritsi da zenbait alorretan. Nahiz titulazioaren aldetik, bi espezialitate besterik ez egon euskara hutsez.

Kezka larri horiek geure barrutik uxatu ezinik ari garelarik, arnasa lasaitzen bide digu **Jean Louis Davant** irakasle zuberotarrak Anton Abadia bere herrikide ospetsuari buruz prestatu duen histori-lan bikainaz: «Lore Jokoen inguramenaz».

Hendaiako Aragorri-ko jauregi aparta ezaguturik (zergatik ez bertako toponimo zaharrari eutsiko?) eskertzekoa da Abadia euskaltzale gartsuaren oroitzapena zehaztea eta gogoraztea.

Hots, lan honetan ere, euskarak (*euskaldunok*, preseskiago) jasan ditugun erasoen ilara azkengabean beste mutur bat erantsi beharraz jabetuko gara. Hona hemen, adibidez, Jimeno Jurioren uzta gaitzari erasteko beste perla ipar-demokratiko hau: «Nous écoles en Pays Basque ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au Basque! (frantses Prefetaren hitzak dira, 1846). Argi eta garbi: frantses eskolaren helburua euskara suntsitzea da.

Eta oraingo egoera «bitxi»tzat jotzen duten analfabetoentzat, hona hemen joan den mendeko egoerari buruz, Duvoisin Kapitain eta euskal idazle ezagunak esaten zuena: «*Como el País Vasco español está bajo estado de sitio*»...

Guztiz irakurri beharrekoa Urrustoiko aberkidearen lan hau...

Kike Amonarriz lankidearen artikuluak esparru zehatz bat aztertzen du oraingoan; eta, berorren barruan ere, eskualde mugatu txiki bat: Bertizko Partzuergo Turistikoarena. Nafarroan ari da, hortaz, Doneztebe inguruan.

Eskualdea errotik dago euskaldun. Euskal mintzatzaileen kopurua %79 eta %87 artean kokatu behar da. Hara doazen turistarik gehienak, beste alde batetik, Hegoaldeko euskal hiritarrak dira; horiez gain, multzo handi bat katalana delarik.

Hizkuntz funtzioen sailkapena, klasikoa da, nolazpait esateko: bertako lan-hizkuntza euskara da; baina bertako zerbitzu-hizkuntza, hein handi batez, gaztelania. Eta ukipen-egoera horren deskribapena da Amonarrizen betebeharra.

Bertako euskaltzaletasuna dexente azkartu da azkeneko urte hauetan: Xorroxin irratia, Ttipi-Ttapa aldizkaria, eta abar. Nola jokatuko horrelako «gune euskaldun» batean? Hauxe da galdera.

Amaitzeko, azkenik, eta aspaldidanik bere gain hartua duen «Iturri Bila» sailean, Udal Euskaltegien azterketa egiten digu **J.M. Odriozola** lankideak. Oso ohar egoki eta premiazkoak egiten ditu euskararen erabilpenari buruz: «*Esto del euskara es todo ideología. Así como en Galicia —aipatzen du— la gente habla gallego porque son gallegos... (Hemen berriz) también hay gente que habla euskera, y no se dirige a la gente en castellano, porque mantiene una cerrazón total*»... Xelebrea, benetan. Galizieraren erabilpena onargarria da (omen!). Euskararena, berriz... itxikeria hutsa! Bapo!

Jarreren azterketa egin behar, hitz batez. Zoru labaina, oso. Baina Odriozola bertan behera abiatzen da, ohar mamitsuak eginez. Funtsean, eta betidanik, Euskal Herrian dagoen eta egon den «asimetria zapaltzailea» kontutan hartu gabe, jai. Zer egin, ordea, asimetria hori bera ukatzen denean? Edo «natural»tzat hartzen denean?

Eta aurkezpen txiki hau eginda, artikuluetara onena.